



Antero  
Apaolaza  
Aranguren

1845-1908

BIDeGILEAK

Egilea:  
**Jerardo Elortza**



# ANTERO APAOLAZA ARANGUREN

(1845-1908)

## Botikari liberala

### LEHEN URTEAK

Antero Daniel Apaolaza Aranguren Urretxun jaio zen 1845eko urtarrilaren 3an. Herri berekoa zen aita, Antonio Maria Apaolaza Araiztegi, eta antzuolarra ama, Maria Isabel Andresa Aranguren Laskurain. Anteroren ama bigarren emaztea zuen Antonio Mariak, aurretik Josefa Ramona Aranburu urretxuarrarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan baitzituzten 1827 eta 1838 bitartean.

Diego Apaolaza Aranburu beasaindarra eta Mikaela Zabalo Zuazola zumarragarra

izan ziren Antonio Maria aitaren gurasoak; Maria Isabel amarenak, berriz, Antonio Aranguren Alkorta zumarragarra eta Frantziska Tomasa Laskurain Pildain antzuolarra. Alargundu ondoren, laster hartu zuen Antonio Mariak Maria Isabel emaztetzat. Bi neska-mutil jaio ziren bigarren ezkontza honetatik: Frantziska Juana 1843an eta Antero 1845ean.

Urretxuko Santa Anastasia parrokian baitaiatu zuen mutikoa Sasieta bikario jaunak eta egunari zegozkion bi santuren izenak ezarri zizkion: Antero eta Daniel, alegia.



Urretxuko plaza nagusia. Atzean J. M. Iparragirrenen monumentua eta parrokia



Urretxuko udaletxea



Goiko kalea eta parrokia Urretxun

Elizatik oso hurbil zegoen garai hartan Apaolazatarren etxea, hiribildu zaharreko Goiko kalean bizi ziren-eta, hau da, gaur egungo Jauregi kalean. Familia, gerora, errebalera aldatu zen, Labeaga kalera hain zuzen ere.

Posta-etxea aurkitzen zen Labeaga kalearen hasieran. Eraikin horiek zeregin garrantzitsua izan zuten orduko garraio-sisteman. Joan-etorri asko zaldi-kotxetan egiten zirenez, ibilbideko herri nagusien atari edo sarrera inguruan horrelako etxeak kokatzen ziren. Han hartzen zuten atsedean bidaiariek, eta ostatu ere bai, gaua bertan igarotzea egokitzen baldin bazi-



Urretxuko Goiko kalea (Jauregi)



Urretxuko posta-etxe ohia  
Labeaga kalean



Urretxuko posta-etxea  
izandakoaren atea gaur egun

tzaien. Zaldiak artatzeko ukuilu nasaiak edukitzen zituzten eta, izenak adierazten zuen moduan, posta-gutunak jaso eta bidaltzeko bulegoa ere bazen, jakina.

Handik urte gutxira trenbide-sarea zabaldu zenean, pixkanaka ezkutatzuz joan ziren posta-etxe horiek. Urretxukoa ere bai, noski, 1864an Urola ibaiaz bestaldetik eskualde guztiko tren-geltokirik inportanteena jarri baitzuten: Zumarragakoa.

Aitak posta-maisu kargua bereganatu zuelako, Apaolaza familia trena heldu baino urte batzuk lehenago aldatu zen Labeaga

kaleko 8an zegoen posta-etxera. Azken hamarkadetan ia zeharo eraberritu den kale horretan zutik iraun duen etxe bakarretakoa dugu. Posta-maisuarena lanpostu garrantzitsua izan behar zuen, inolaz ere, semeak unibertsitatean ikasteko adina diru eskuratu baitzion Antonio Mariari.

Batxilergoa egiteko ez zuen garai hartan oso urrutira joan beharrik Anterok: Bergarako Seminario ospetsua izandakoan zegoen batxiler-sistema berriko lehenengo institutu gipuzkoarra. Karrera bat ikastea, ordea, beste kontu bat zen. Botikari izan

nahi zuen Apaolaza gazteak, eta hartarako Madrileko unibertsitatera jo behar izan zuen, erreinuko hiriburuko farmazia-fakultatera. Ikasketa horiek ordaintzea izan zen, nonbait, Anterok aitaren aldetik jaso zuen ondarea. Urretxuko etxea Franziska Juana arrebaarentzat geratu zen.

## BERGARAN ETA ANTZUOLAN

Gazterik bukatu zituen Anterok karrera hartarako behar ziren estudioak Madrilen eta hango farmazia-fakultateak eskuratu



Antero Apaolaza,  
Bergaran bizi zen garaian

zion botikari-titulua 1869ko irailaren 2an. Hurrengo urteko azaroaren hasieratik Bergaran ekin zion bere lanbideari. Herri hazitxoa genuen orduan Bergara, 5.000 inguru bizilagunekin, Donostia, Tolosa eta Oñatiren ondoren, handienetakoa Gipuzkoan. Deba Arroaren erdi inguruan kokatua, bidegurutze garrantzitsua zen Gasteiztik itsasorako eta Goierritik Bizkairako errege-bideak elkartzen ziren parajea. Jauregi ederrak zituen herriko kaleetan nahiz inguruetan, udaletxe dotorea eta antzinako seminarioa beheko plazan, eta goikoan San Pedro parrokia bikaina eta auzitegi berri zabala, eskualdeko barruti judizialaren buruari zegokionez.



Bergarako udaletxea XX. mendearen lehen urteetan



Dantzari-taldea Bergarako Bidakruzeta kalearen hasieran (1904). Eustakio Agirreolaren argazkia

Beherago, Deba errekaen ertzean eta elkarri begira, pilotaleku modernoa eta Oxirondoko Santa Marina parrokia aurkitzen ziren.

Tamaina horretako herriak gehienetan ondo hornituak egon ohi ziren, zerbitzuei dagokienean. Eta halaxe zegoen Bergara ere: eskualdeko feria-leku inpor-

tanteena ez ezik, hainbat denda, taberna eta ostatu ere bazituen hirigunean; auzitegiaren eraginez-edo, ez zen falta abokatu, eskribau eta notariarik; lehen mailako eskolez gain, arestian aipatu den institutua zeukan beheko plazan eta Mariaren Lagundiko ikastetxea Espoioian; herriko ospitalea, hiru mediku eta bi botikari arduratzen ziren bergararren osasunaz. Lehen



Begarako Santa Marina parrokia eta pilotalekuaren inguruak 1900 aldera. Eustakio Agirreolaren argazkia

urratsak ematen ziharduen Gipuzkoako industria berriak ehungintza-fabrika eraikia zuen 1844an Gabiria dorretxearen ondoan: oraintsu eraitsi duten *San Antonioko Algodonera* ezaguna, nahiz eta oraindik *Tavex* izenarekin Bergaran eta beste toki batzuetan jarraitzen duen.

Politika aldetik ez ziren sasoi lasaiak haiek. Antero artean Madrilen ikasten ari zela, Isabel II.ak, Espainiako erreginak, Frantziara alde egin behar izan zuen ihesi 1868an, Iraileko Iraultza Lorio-sak behartuta. Hurrengo zortzi urteetan makina bat gorabehera ezagutu ziren bazterretan: Serrano eta Prim jeneralen

agintaldiak; Primen kontrako atentatua eta Saboiako Amadeoren erregealdi laburra; I. Errepublika, federala eta gatazkatsua; kantonalistek batetik eta karlistek bestetik piztutako liskarrak eta gerra; Pavía eta Martínez Campos jeneralen estatu-kolpea eta altxamendua; eta Alfonso XII.aren berrezarkuntzarekin azken gerra karlistaren amaiera eta euskal foruen behin betiko galera 1876an.

Euskal Herrian eragin gehien eduki zuena karlisten eta liberalen arteko gerrate gogorra izan zen. Hiriburuak liberalen esku geratu baziren ere, herri txikietan laster nagusitu ziren Karlos VII.aren jarraitzaileak. Bergara bezalako herrietan, aldiz, borroka orekatuagoa izan zen. Jende xehea, oro har, karlisten aldekoa izan arren, agintari eta handikien artean denetik zegoen, eta abokatu, mediku nahiz botikari gehienek liberalen alderantz jotzen zuten. Horregatik, ez da harritzekoa Antero Apaolaza ere liberala izatea. Egia esan, ez da gerra garaiko dokumentazioan hori egiaztatzen duen agiririk agertzen. Baina geroago ikusi zenez, bere gremiokoen ideologiarekin bat zetorren.



Karlistada hasi zenean, beraz, Bergaran ari zitzaigun lanean botikari gisa. Farmazia Bidakruzeta kaleko 5. zenbakian jarriko zuen, segur aski, plaza nagusitik oso gertu. Etxe horretan zeukan, behintzat, bizilekua eta botika 1879an, urte hartako maiatzean egindako erroldak frogatzen digenez. Aurretik, ordea, ezkondu egin zen Felipa Eulalia Azkarate Lezeta bergararrarekin 1873ko abenduaren 15ean. Hogeita zortzi urte zituen Anterok eta hogeita lau emaztegaiak, eta Felipa Santa Marinako eliztarra zelako-edo, parrokia hartan egin zuten ezkontza-zeremonia. Lekukotzat Jose Agustin Agirre eta Mateo Zumalabe izan zituzten, Bergarako medikuak biak eta liberal ezagunak. Ez dugu uste beste-lako ospakizun handirik egiteko betarik eta modurik izango zutenik, gerra-giroan murgilduta baitzeuden 1872 ezkeror.

Ez dirudi, karlistak 1873ko abuztuan Bergaran sartu zirenean, Apaolazatarrak, beste liberal asko legez, herritik Donostiara edo beste hiriburu batera alde egin beharrean aurkitu zirenik. Ezkontza hartatik jaio ziren bost seme-alabetatik hiru Bergaran munduratu ziren: Frantzisko




Bergarako Bidakruzeta kalearen hasieran zegoen Antero Apaolazaren botika eta bizilekua



Frantzisko Apaolaza, Oñatin mediku zenean



Maria Irizar. Frantzisko Apaolazaren emaztea



1874an, gerra-denboran; Roman, 1876an gudatea amaitu eta laster, eta Maria Isabel, 1879an; eta beste bi Antzuolan: Frantziska, 1882an, eta Luisa, 1883an.

Frantziskok, mediku-karrera egin ondoren, Oñatin jardun zuen luzaroan sendagile-lanetan. Etxaluze izeneko eraikuntza ederrean bizi izan zen Kale Barriko goieneko aldean, 1905ean etxe hartako alaba Maria Irizarrekin ezkondu zen-eta. Anteroren alabarik gazteenek ere, Frantziska eta Luisak, Oñati aldera jo zuten. Hauek, ordea, plaza ondoan zegoen Santa Ana komentuan moja sartu ziren, euren aitak antiklerikal eta librepentsalari fama eduki arren; hori bai, Antero hil eta gero komenturatu ziren. Isabel gaixo samarra zelako, gurasoekin geratu omen zen. Roman, berriz, Encarnación Etxeberria antzuolarrarekin ezkondu eta Tolosan eta Bilbon bizi izan zen. Donostian dira egun haren ondorengoak.

Bergaran itxuran finkatuta zegoela zirudienean, ongi ezagutzen ez dugun gertakari misteriotsu batek sakon samar astindu zuen Apaolazaren bizimodua. Karlistek azken gerra galdu ondoren, liberalak izan

ohi ziren nagusi herri askotako udaletan, lehenengo hamarkadan behinik behin. Hala ere, ez zen makala karlismoak zuen eragina herritar askorengan. Gerra amaitu eta bost urtera, hain justu, egokitu zitzaion Anterori Bergarako alkate liberalizatea, 1881eko uztailean. Baina ez zuen alkatetzan asko iraun, urte bereko irailean kargua utzi eta Antzuolara joan baitzen bizitzera.

Zer jazo ote zen horrelako erabaki harrigarria hartzeko? Udaletxeko paperetan ez da arrazoi garbirik adierazten; bizilekua Antzuolara aldatu izanarena bakarrik. Ezin ukatu orduko giro politikoa nahikoa zitala zenik, gerraren ondorio eta oroitzapen latzak bizi-bizirik baitzeuden herritarren artean. Farmazia moduko negozioa zuen profesional batentzat arriskutsuegia ote zen horrelako kargua onartzea? Familiaren presioa jasan behar izan ote zuen Anterok? Ahozko tradizio bati jarraituz, Juan San Martinek zera dio: medikuren baten portaera ez zuzena salatu zuelako, herriko handikiak kontra azaldu zitzaizkiola eta Antero zeharo nazkatuta geratu zela<sup>1</sup>. Kontua da, Bergarako botika eta

udala lagata, Antzuolara alde egin zuela Apaolazak, 1.000 biztanle pasatxo zeuzkan herri askoz txikiagora, alegia.

Gure botikariak, bada, amaren jaioterrian igaroko ditu bere bizitzako azken hamazazpi urteak. Kale goiko 9. zenbakian jarriko ditu bere egoitza nahiz botika, *Montxonenekua* deritzan etxean, eta han jaioko zaizkio bi alaba gazteenak 1882an eta 1883an. Arestian aipatu ditugun beste hiru seme-alabak bergararrak ziren, 1874 eta 1879 bitartean sortuak. Antzuolan, dena den, amaren aldetiko senideez

gain ondasunak ere bazituen, herri horretako baserriren bat tokatu baitzitzaion herentzian. Bizileku berrian ez zuen, ziur asko, pentsamolde liberalaren jabe zen batek Bergaran baino giro xamurragoa aurkituko. Eta badirudi etxeok ere ez zizkiotela bere ideiak onartu; familiako emakumeek bederen, hau da, emazteak hasieran eta hiru alabek geroago, nagusituz joan ziren heinean. Seme biak, Frantzisko eta Roman, aitaren tankerakoagoak zirela esango nuke, Apaolazatarren egungo senideei kasu egiten badiegu.



Antzuolako udaletxea



Antzuolako *Montxonenekua* gaur egun



## Politikatik literaturara

Antonio Trueba, *El Judas de la casa*  
nobelatxoaren egilea

**E**gia esan, herri-aldaketa hori ez zitzaien hain gaizki etorri euskal letrei. Izan ere, Antzuolako bakardadean eta lasaitasunean patxada gehiago izango baitzuen Anterok irakurtzeko nahiz idazteko. Bestalde, inguratzen zuen giro zaila gainditu ahal izateko-edo, literatura nolabaiteko ihesbide eta babeslekua bilakatu zitzaion nonbait. Tamalez, idatzi zituenetatik obra bakarra iritsi zaigu: *Patxiko Txerren*. Gainontzekoak, ez dakigu zenbat, erre egin omen zituzten senideek, Antero hil zenean. Batzuk bertsoz moldatuak omen ziren.

Idazteko grina seme zaharrenari, Frantziskori, ere kutsatu ziola ematen du. Zenbait

bibliografia, poesia-antologia eta literaturaren historiatan horrela agertzen da<sup>2</sup>, behintzat: Frantzisko Apaolaza, Oñatiko medikua eta Anteroren semea, euskarazko lau poematxoren egilea izen zela, gutxienez. Alabaina, bada hor data-arazotxo bat: olerki horiek 1889an argitaratu zirela Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian, hots, Frantziskok 14-15 urte besterik ez zuenean. Mutiltxo gazteak bakarrik moldatu ote zituen ala aitak edo besteren batek lagundu ote zion zeregin horretan? Bakarrean ondu baldin bazituen, euskal idazlerik goiztiarrenetakoa izango genuke Frantzisko Apaolaza Azkarate bergararra.

## ANTERO APAOLAZA ETA ANTONIO TRUEBA

*Patxiko Txerren*, Apaolaza aitaren idazlan ezagun bakarra, ez da berak sortua, baina ez da itzulpen soila ere. Antonio Trueba idazle bizkaitarraren obra baten moldapena dugu. Galdamesko Montellano edo Mendizelai auzoan 1819an jaiotako autore honek liburu asko kaleratu zituen arlo desberdinei buruz, ipuin, narrazio eta eleberrietan bereziki. Autodidakta samarra izan arren, historia-gaiak ere jorratu zituen, batez ere 1862an Bizkaiko Jaureriko kronista eta artxibozain izendatu zutenetik. Madrilen eta Bilbon bizi izan zen batik bat, eta azken hiri horretan hil zen 1889an.

Gaur egunean hain estimatua ez bada ere, oso irakurria izan zen XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren hasieran. Bizkaiko hiriburuan Mariano Benlliure eskultore ospetsuak egindako monumentu ikusgarria eraiki zioten Albia plazan, eta Euskal Herriko hainbat kale eta aretore jarri zioten galdamestarraren izena. Gorago adierazi den *Euskal-Erria* kultur aldizkarian ere lan mordoxka agertu

zen euskaraz nahiz gaztelaniaz, Truebaren omenez 1889an. Euskarazkoak Felipe Arrese Beitia, Frantzisko López Alén, Karmelo Etxegarai, Antonio Arzak eta Juan Karlos Guerrarenak ziren. Eta idazle heldu eta ezagun hauen poema eta prosa-lanekin batera, aipatu berri dugun Frantzisko Apaolaza gaztetxoak honako soneto hau kaleratu zuen errebista eta urte berean:

### ON ANTONIO TRUEBA-KOARI

\*\*\*\*\*

#### AMALAUDUNA

Aberea, plantaia! aitz gogorra,  
Gizona, ai! dena, mundu onetan  
Guztia al duanan gotxedetan  
Dena izan bear du illkorra.

Goiz argiak ere ikusi nola  
Lege onen beran zoriondetan  
Arratseko ostarkian besoetan  
Illaz, aitortzen du bere zorra.

Baña, Trueba-ren oroipen eztia  
Euskal-erritarren biotzean  
Segurki iraungo du bizia

Aitzgorriko aitz zut dan artean  
Bai, bere izena egokidaro  
Mintzaiatuko da beti, betiro.


Truebaren lehenengotariko lanen artean *Cuentos de color de rosa* (1859) izeneko ipuin-bilduma topa dezakegu. Zazpi ipuin-narrazio luze samarrek osatzen dute liburua, istorio guztiak Bizkaian gertatzen direlarik, Enkarterrietan batez ere: Galdames, Sopuerta, Gueñes eta inguruetan. Arrakasta handia lortu zuen garai hartan eta behin eta berriro argitaratu zuten. Bilduma horretako bosgarren kontakizunak *El Judas de la casa* du izenburutzat eta, askoren ustez, arrosa kolore gutxienekoa da liburuko ipuin guztien artean. Gue-

ñesko Etxederra deritzan baserri bateko familia baten gorabeherak kontatzen zaizkigu bertan: gurasoak eta hiru seme-alaba dira baserrian bizi direnak; adinekoak aita-amak, gazte sasoikoak bi mutilak eta neska bakarra; sendi zoriontsua litzateke, semerik zaharrena, Bautista, hain zitala eta doilorra ez balitz; anaia gaztea, Ignacio, mutil zintzoa eta jatorra da, arreba Juana bezalaxe. Osagai manikeo samar hauekin garatzen da istorioa: Bautistaren zikoizkeriak hondamendia ekarriko dio familia osoari, baina deskalabru askoren ondoren, Ignacio eta Juanaren pazientziari eta jokabide zuzenari eskerrak, gauzak bere onera itzuliko dira, zintzoentzat behintzat.

Atzerriko hainbat hizkuntzatarara itzuli ziren Antonio Truebaren idazlanak: frantses, italiera, alemanera, ingelesera, portugesa eta errusierara, besteak beste. Gure artean hain estimatua baldin bazen, ez da harriztekoa euskaratzeko saioen bat norbaitek egitea. Egia esan, foruak kendu ondorengo urteetan, egoera triste hura nolabait gainditu guran, euskara suspertzeko ahaleginak areagotu egin ziren Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, Iparraldeko



Frantzisko Apaolaza, mediku-titulua jaso zuenean




Antonio Truebaren *Cuentos de color de rosa*. Bosgarren argitalpena. Madril, 1875


euskaltzaleen ekarpenak ahanzi gabe. Ohiko erlijiozko kontuez aparte, gero eta maizago hasi ziren bestelako gaiak ere lantzen, bertsoz nahiz hitz-lauz. Eta Hego Euskal Herrian karlistak ez ezik, liberalak ere aritu ziren tema horretan. Adibiderik garbiena, agian, lehenago gogoratu dugun *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan maitu zen. Jose Manterola liberal donostiar eta euskaltzale sutuak 1880an eratu eta bideratutako errebista honek lortu zuen elkartzeari argitalpen serio baten hegalpean ordura arte sakabanatuta zeuden taxu eta pentsamolde desberdinetako idazleak. Gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz argitaratzen zituzten era askotako idazlanak, euskararen eta euskal literaturaren inguruan zihardutenak garrantzia handia izatera iritsi zirelarik.

Testuinguru horretan ulertu behar da Antero Apaolazaren euskarazko lantxoia ere. Gizon eskolatua eta irakurzalea izango zen Antzuolako botikaria. Ikasketak erdara hutsean eginak izango zituen, baina bazeukan, antza, euskararenganako zaletasuna ere. Ez zuen, agian, obra luze eta originalak idazteko asti, kemen eta

ausardiarik. Horregatik helduko zion itzulpen-lanari, bere gustuko zuen testu baten euskaratzeari. Hautaketa egiterakoan, ez zuen zalantza gehiegirik izango: Antonio Trueba, ikusi dugunez, autore oso ezaguna eta sarritan argitaratua genuen XIX. mendearen hondarrean. Gogora dezagun, bestalde, Apaolaza semeak, aitaren bultzadaz eta laguntzaz beharbada, Truebari eskaini zion sonetoa ere. Gainera, Anteroren euskarazko moldapenaren argitalpen-datari (1890) erreparatzen badiogu, pentsatzeko modukoa da urretxuarrak omenalditxoia egin nahi izan ziola hil berria zen galdamestarrari.



*Patxiko Txerren* nobelatxoaren azala. Lehenengo argitalpena, Bergara, 1890



# Itzultzaile eta moldatzaile

*Patxiko Txerren*. Seigarren argitalpena,  
Erein, Donostia, 1993

## ANTERO APAOLAZAREN BERTSIOA

Itzulpenak egiteko era bat baino gehiago egon ohi da: itzultzaile batzuek estu-estu eta oso hurretik jarraitzen diote jatorrizko testuari; beste batzuek askeago jokatzan dute, egoerak eta hizkera-mota euren komenentzien arabera egokituz; zenbaitek jatorrizkoa «aberastu» egiten dute, beste hainbatek, aldiz, «erraztu». Zeregin horretan Antero Apaolaza nahikoa libre aritu zela esan behar, eta gehienetan testua samurtzen saiatu zela. «Euskeralben» hitza darabil berak, baina egun euskarapen

gisa hartzen duguna baino askoz gehiago egokipena dela esango genuke. Izenburutik hasita, makina bat aldaketa egiten dio testuari: *El Judas de la casa* titulua bera pertsonalizatu egiten du, *Patxiko Txerren* bihurtuz.

Ez da hau, ordea, moldapen bakarra, ezta gutxiagorik ere. Anjel Lertxundik, *Patxiku Txerrenek* oraingoz izan duen azken edizioari ezarri zion epilogoan<sup>3</sup>, ederki azaltzen ditu aldakuntza horietako asko. Hona hemen Lertxundik aipatzen dituen batzuk:



a) Narrazioaren ekintzaren kokapenari dagokiona da deigarriena, agian. Truebak Enkarerrietan jarri duen istorioa Apaolazak bere ibarrera dakar, hots, Antzuola eta inguruetara; Bizkaiko eskualde erdaldun batetik, garai hartan bederen, bailara oso euskalduna zen batera. Beraz, euskarazko irakurleei sinesgarritasun gehiago emateko-edo, zeharo aldatzen ditu Anterok kontakizunari dagozkion parajeak. Begira erdarazko eta euskarazko gertalekuen artean dagoen aldea:

A. Trueba	A. Apaolaza
Gueñes	Antzuola
Bilbo	Bergara
Bilbo	Oñati
Bilbo	Donostia
Bilbo	Tolosa
Avellaneda	Bergara
Castro Urdiales	Oñati
Castro Urdiales	Bergara
Mexiko / Nueva España	Indiak
Zalla	Urretxu

Maiz agertzen den beste toponimo bat ere ez dator erdarazko testuan bezala: Truebak *Echederra* ipini baldin bazion izentzat Gueñesko baserriari, Apaolazak *Etxe Alai* gisa bataiatu zuen Antzuolakoa. Kasu honetan ez dago oso garbi aukera berriaren premia.

b) Beste aldaketa nabarmen bat pertsonaien izenarena dugu, testu batetik bestera ia erabatekoa baita:

A. Trueba	A. Apaolaza
Bautista	Patxiko
Martín	Juane
Mari	Fraiska
Juana	Mikaela
Mateo	Anjel
Doña Antonia	Josepa
Miguel	Simon
Chomin	Mitxel
Jacinta	Maria
Agustina	Manu
Rumbana	Pepete



Antzuola 1915ean

Bi pertsonaiek soilik eusten diote jatorrizko izenari: Don Jose apaizak eta Ignazio seme formalak.

c) Nobelatxo honen irakurketa samurru alde, Anterok arindu egiten du idazkera, Truebaren estiloak enbarazu egiten diorean: adibidez, deskripzioak laburtu egiten ditu askotan, aipamenak baztertu, zehar estiloaren orde zuzenekoa erabiltzen du, intzizioak (tabakoari buruzko iruzkin luzea, esaterako) eta irakurleari egindako interpelazioak murriztu edo

kendu. Bertso eta kantuekin ere oso libre jokutzen du: kasuren batean ez du erdarazkoa itzultzen (3. eta 8. kapituluetan) eta beste batzuetan jatorrizkoan ez datorrena asmatu egiten du Apaolazak (5. kapituluko ikazkinaren kantua):

Goiz, eguardi eta arrats  
 beti porru salda,  
 kopatsu nai izatea  
 arrazoi ez al da?  
 Burrun burrun bun  
 kopatsu nai izatea  
 arrazoi ez al da?



Mairuaren jaia Antzuolako plazan (1910). Eustakio Agirreolaren argazkia

Beste zenbaitetan, berriz, euskaratu baino gehiago egokitu egingo ditu urretxuarrak galdamestarraren bertsoak. Hona hemen lagin batzuk:

En mi casa hay un libro;	Nik badut liburutxo bat
dice la letra:	duana esaten,
En cuidados ajenos	ñor ez dedilla asi
nadie se meta	auzo gobernatzen.

Edota ikus beste lelo labur honi ematen dion taxukera:

Rumba Rumbana,	Pepe, Pepete,
los doblones de Güeñes	ñoren gauzaz
rumban en Zalla	zuk etxea bete.

Eta ezin aipatzeke utzi kapituluaren banaketa bera zein era librean egiten duen urretxuarrak. Truebak nahiz Apaolazak hamarna kapitulutan zatitzen dute istorioa, baina testuaren banaketa ez dator beti bat bertsiorekin eta bestean. Hori nabarmen ageri da lau-bost-sei eta zazpi-garren kapituluetan.



Antzuolako *Montxonenekua* 1925ean.  
Etxe horretan jarri zuen Antero Apaolazak bere botika eta bizilekua


Lertxundiren ustez, «jatorrizko testua baino hizkera lijer, bizkor eta erritmi-koagoa» darabilelako, «Apaolazaren bert-  
sioak hobetu egiten du Truebarena<sup>4</sup>». Eta San Martin ere iritzi horretakoa da: «Truebaren prosa, beretzat, astunegia izaki, landertu egin zuen hainbat ondoen. Truebarena aspergarri samarra bazen ere, Anterok eralgiz kendu zion zahia. Itzul-

tzaile batek horretarako eskubiderik ez badu ere, *El Judas de la casak* Apaolazarengandik atera zenean asko irabazi zuelakoan gaude. Jatorrizkoa bera baino hobe da irakurtzeko. Uste dugu Apaolazak bazekiela zer egiten zuen. Lasto kentze horrek ez dio nobelari kalterik egin, mesede baizik<sup>5</sup>».

## LIBURUAREN ARGITALPENAK

Irakurleen aldetik *Patxiko Txerren* nobelatxoak estimazio polita jaso zuela esan daiteke, mende batean izan dituen argitalpenei erreparatzen badiegu behinik behin. Erljio-gaiak lantzen ez dituzten euskal liburuen artean sasoi hartako gutxik eduki dute hainbeste edizio. Domingo Agirreren *Kresala* eta *Garoa* edo beste bakarren bat kenduta, nekez aurki daiteke epe horretan sei bider kaleratu den euskarazko literatur lanik. Tankera eta garai aski desberdinetakoak dira Anterok moldatutako lanaren argitalpenak:

a) Lehendabizikoa Bergaran azaldu zen 1890ean, Juan Lópezen moldiztegiari, Trueba hil eta handik urtebetera. Ez dugu argitalpen honi buruzko bestelako daturik topatu, baina inprenta Antzuolatik hain gertu egotean, lehen edizio honen gorabeheraz Apaolaza bera arduratu zela pentsa dezakegu. Ortografia zaharra darabil, ez oso zuzen beti, eta ez zaio inprenta-akatsik falta.



*Patxiko Txerren*. Bergarako edizioaren barruko lehen orrialdea

b) Bigarrena ez da hain ezaguna eta aipatua. Atalka publikatu zelako, beharbada. Resurrección María Azkuek argitaratu zuen *Ibaizabal* aldizkarian 1903an, 60tik 75era bitarteko zenbakietan zatika. Ortografia berriagoan eta aurrekoaren akats batzuk zuzenduta agertu zen<sup>6</sup>.

c) Hirugarren edizioak Irunen ikusi zuen argia 1915ean, J. Díazen moldiztegiari.

d) Laster kaleratu zen laugarrena ere, 1917an, Donostiako *Euskal Esnalea* aldizkariaren ekimenez. Bi eratan eskaini zuten: folletin moduan, aldizkarian bertan eta, separata gisa, liburu batean. Azken hau Martín, Mena y Cía. irarkolan inprimatu zuten Truebaren beste eleberritxo baten itzulpenarekin batera: *Ugaz-ama* deiturikoa, *Cuentos de color de rosa* bildumako beste kontakizun bati (*La madrastra* izenekoari) Nikasio Larreak egin zion euskarapena, hain zuzen ere.

e) Bosgarrena berrogeita bost urteko tarte luze baten ondoren kanporatu zen «Auspoa» liburu-sortaren zortzigarren zenbakian, Tolosa, 1962. Juan San Martinek prestatu zuen edizio honek jatorrizko testuari jarraitzen dio, nahiz eta beste edizio batzuetako aldaera batzuk ere oharretan jaso. Interesgarriak dira, halaber, egileaz eta liburuaz sarreran nahiz hitzazuzan euskaltzain eibartarrak eskuratzen dizkigun berriak.

f) Seigarrena da azkena, oraingoz. Erein argitaletxearen «Auskalo» sailean agertu zen 1993an. Euskara batura egokituta dago, testuaren prestaketa Anjel Lertxundik egin zuen eta Antton Olariaga marrazkigile ezagunarenak dira ilustrazioak. Liburuaren amaieran, irakurleari zuzen-



*Patxiko Txerren*. Bosgarren argitalpena, Auspoa, Tolosa, 1962

dutako atalean, eleberritxoaren azterketa garrantzitsua eskaini zigun idazle oriotarrak, Apaolazaren lanaren ezaugarriak eta balioak azpimarratuz.

Dena den, ez zen Anterorena izan Truebaren ipuin-nobelatxo honen euskarapen bakarra. Mikel Arrutza *Arrugain* bilbotarrak atondu zuen beste itzulpen berri bat eta 1934an argitaratu, Arseni Beaskoetxea marrazkilariaren apaingarriekin Bilboko Verdes Atxirikaren moldiztegian. Bertsiio berri honek *Etxe-kalte* izenburua darama eta Apaolazarenak baino askoz gertuagotik jarraitzen dio gaztelaniazko testuaren ildoari. Orduko haiek Euskal Literaturan garbizaletasuna nagusitzen ari zen urteak zirelako-edo, badu Arrutzak batzuetan euskara berriaren ukitua, baina purismoaren gehiegikerietara iristeko. Itzulpen txukuna da, oro har, nahiz eta sarritan Apaolazarenaren freskototasuna falta zaion; agian, Truebak idatzitako guztiak hitzez

hitz aldatu nahi izan zituelako euskara-ra. Hona hemen, lagin moduan, bataren nahiz bestearen pasarte baten itzulpena. Ignaziok Ameriketatik etxera bidaltzen duen gutun baten hasiera da:



*Etxe-kalte*. Mikel Arrutzak 1934an A. Truebaren lanari egin zion itzulpena

### A. Apaolaza

Nire aita, ama eta anai arreba maiteak; zuengandik alderatu nintzan ezkerero, naigabea eta tristura izan dut lagun ordu guztietan. Ni Amerikara joateko Donostian sartu nintzan ontziak, izan zituan bidean milla eta milla estrapuzu, baña ala guztiaz ere urreratu giñan zorioneko Indietarako lurretara. Danon ustea zan seguru giñala, baña gure Jaungoikoak erakutsi nai zizkun oraindikan estutasun gogorragoak... Beingo batean atera zan aize mot(a) izugarri bat, agertu ziraden olatu batzuek mendiak bezelakoak, illundu zan zerua, eta trumoi orruaz bat batera asi ziran orruntz onuntz, galda galdan dagoan burnia baño gorriagoko oñaztuak.

Gure ontzia, tantai luzeak aizeak eramanik eta tximistak zatiturik, zebillen ur gañean, gaztaña orbela ibiltzen dan gisa uda azkeneko aizearekin, noiz baño noiz geldituko olaturen baten azpian geiago ez agertutzeko. Alako batean, tarra tar tar egiñaz, banatu zan ontzi zarra, eta nerekin zijoazen lagunik geienak izkutatut ziraden itxasoaren barrenera geiago ez azaldutzeko [...].

### M. Arrutza

Ene guraso ta anai-arreba maite-maiteak: Eurokandik aldendu nintzan ezkeroztik, zoritxarra izan da nire lagun eta bidekide alde guztietatik.

Itxaso zabal orretan izugarrizko ondamentiak erabilli zituan ni Mejiko'rantza etorteko aukeratu neban itxasontziak. Zeru eta itxaso artean zori ta naigabe gogorrak yasanda gero, ta Mejiko'ko itxas kolkoa arrapatu gendualako, gure samintasun guztien azkenera eldu gintzazala uste izan genduanean, Jaungoikoak ondiñokarren beste naigabe estuago batzuen bidez aztertu nai izan eban gure eroapena. Itxasoko olatuak legorreko mendi yagien antza arturik, indar izugarriz igituten asi zirean; alderdi guztietako aizeak bultz egiten eutsen bildurkiro gure ontziari; zerua odei baltzez illundu zan, trumoiaren ots ikaragarria entzun genduan, eta tximista izukor batek ausi zituan gure ontziaren masta guztiak. Ekaitzari aurre emon nairik ibilli gintzazan luzarotxoan bizirik urtengo genduaren itxaropen guztiak ia galduta geunkazala, ta azkenez, birrindu egin yakun ontzia, ta nire ontzikiderik geienak antxe bertan aurkitu eben betiko atsedena, itxaso zabalaren ondar bildurgarrietan [...].



## ONDORIO GISA

Ez da oso ugaria Antero Apaolazak utzi zigun ondarea euskal letretan. Gorago aipatu denez, badirudi hark idatzitako beste hainbat lan galdu egin zirela, zenbat ziren ez baldin badakigu ere. Alabaina, geratu zaiguna, bere urrian, kontuan hartzekoa dela iruditzen zaigu. Hara zergatik: batetik, ordura arte euskaraz ondutako literatura ez erlijiosoari bultzadaxoa eman ziolako; eta bestetik, bere garaian mediku



Antero Apaolazaren sinadura 1879ko erroldan (Bergara)

eta botikariak ziren euskal idazleen izen-degi meharra apur bat loditzen lagundu zuelako.

Gai ez erlijiosoak landu ziren aurreko mendean eta urteetan ere, gutxi-asko, baina elizarekin zerikusia zutenak baino maila apalagoan. Allande Oihenart, Xabier Munibe, Bizenta Mogel, Juan Ignazio Iztueta, Jean Pierre Duvoisin, Jean Baptiste Daskonagerre eta beste banaka batzuen lanek lortu zuten argia ikustea. Beste batzuenak, ordea, ezkutuan egon ziren denbora askoan, gizalditan inoiz; berandu ezagututako idazle sekular horien artekoak ditugu, adibidez, Juan Perez Lazarragakoa, Joanes Etxeberri Sarakoa, Pedro Ignazio Barrutia, Jusef Egiategi edota Jose Pablo Ulibarri.

Elizgizon ez ziren egileek gutxiengoa osatzen zuten, jakina. Irakasleak ziren batzuk, eskribau eta abokaturen batzuk ere bai, eta matematikaririk ez zen falta. Osasun sailekoen artean medikuek aitzindari aipagarria izan baldin bazuten (Joanes Etxeberri Sarako humanista bikaina), XIX. mendearen amaieratik aurrera, alde edo moldez, osa-

gile-andana inportanteak hartu du parte euskal letretan: Pablo Fermin Irigarai, Jon Arrospide, Albert Constantin, Frantzisko Apaolaza, Jean Etxepare, Joseba Zinkunegi, Aingeru Irigarai, Justo Garate, Pedro Díaz de Ulzurrun eta Jose Angel Irigaraik, besteak beste. Botikarien artean, berriz, Antero Apaolazak XIX. mendearen hon-darrean emandako hasierari Jose Antonio Loidi Bizkarrondok eman zion jarraipena XX.aren erdialdean.

Aurtengo abenduaren 21ean beteko dira ehun urte Antero Apaolaza Antzuolan hil zela. Ehortzi Bergarako hilerrian egin zuten, emaztearen familiaren hilobian. Azkenera arte, bada, nola edo hola Deba Arroko inguru horri atxikita bizi izan zen. Mendeurrena ospatzeko, ez legoke gaizki eskualde horretako udalek Apaolazari omenalditxoak egingo baliote, *Patxiko Txerren* eleberritxoaren zazpigarren edizioa argitaratuz.



Antero Apaolaza,  
XX. mendearen hasieran  
Oñatiko *Etxaluze*  
jauregiaren lorategian

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Donostiako Apaolaza-Banister familiari
- Iñaki Ormazabali
- Arantzazu Oregiri eta Bergarako Udal Artxiboko langileei
- Juan Luis Bikuñari
- Mikel eta Josuren Murgizurri
- Jone Larrañaga Antzuolako Udaleko artxibozainari
- Koldo Argandoña Urretxuko Udaleko artxibozainari
- Joseba Etxeberría Arantzazuko santutegiko liburuzainari
- Juan Jose Agirre Lazkaoko monasterioko liburuzainari
- Ramon Martín Sukiari eta Oñatiko protokoloen artxiboko langileei

#### Oharrak

<sup>1</sup> Juan San Martín, in *Patziko Txerren*, Auspoa argitaldaria, Tolosa, 1962, 12. or.

<sup>2</sup> Adibidez, Juan San Martín, a. l., 10. or.; eta Aita Onaindia, *Milla euskal olerki eder*, Larrea-Amorebieta, 1954, 394. or.

<sup>3</sup> Anjel Lertxundi, in *Patziko Txerren*, Erein argitaletxea, Donostia 1993, 101-120 or.

<sup>4</sup> Anjel Lertxundi, a. l., 113.or.

<sup>5</sup> Juan San Martín, a. l., 17. or. Aipua gaurko idazkerara egokitua dago.

<sup>6</sup> R. M. Azkuek 1923an agerrarazi zuen Morfología Vascaren “Índice de autoridades” atalean honako hau dakar: “Apaolaza, farmacéutico de Anzuola (G). Autor de una linda obrita titulada *Pachico Cherren*, adaptación vasca de la novelita *El Judas de la casa*, de Antonio de Trueba. Tuve el gusto de escribir al autor felicitándole por su obra e incitándole a que escribiese otras por el estilo. Inútil fué mi empeño”.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Herminio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2792-8 (Lan osoarena)  
978-84-457-2795-9

L.G.: VI-446/08

# BIDOGUILLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco